


UR KONTSUMOAK 2018AN

AMVISAK itxi egin ditu 2018ko kontsumo datuak, eta, horien arabera, Vitoria-Gasteizek uraren erabilera oso efizientea egiten jarraitzen du

2018. urtean, Arakako ur araztegitik hiriko banaketa sarera bideratutako ur bolumena **18.170.960 m³-koa** izan zen; alegia, aurreko urtean baino %1,1 gehiago, nahiz eta biztanleko eta eguneko egindako guztizko hornidura edo kontsumoa ez zen ia aldatu: 197,8 litrotik 198,1 litrora.

Erabilerei dagokienez, %57 **ur hotz zein beroaren etxeko kontsumoari** dagokio, eta kontsumo mota horrek horixe izan du minimo historikoa: **105,5 litro biztanleko eta eguneko**. Hiriko 28 auzoetatik 16tan (landa eremuak alde batera utzita) batez bestekotik beherako kontsumoa izan dute. Horietako seitan –alegia, Abetxuko, Arana, Arantzabela, Zaramaga, Salburua eta Zabalzana– ez dira 100 litrora iritsi biztanleko eta eguneko.

Ettxeko kontsumoaren bilakaera, azken hamar urteetan



Gainerako erabileretan aldaketa txiki batzuk izan dira: biztanleko eta eguneko kontsumo komertziala eta industrialak pixka bat gutxitu da: 38,7 litrokoa izan da. Kontsumo instituzionala, aldiz, igo egin da: 32,2 litrotik 34,9 litrora.

Nabarmenezkoa da sarearen errendimendua %91,4n mantendu dela, eta horrek adierazten du sarera bideratutako uraren %95etik gora bere amaierako helmugara iristen dela. Horren ondorioz, Vitoria-Gasteiz da Estatuan galera erreal gutxien dituen hirietako bat (%5etik beherakoa).

Uraren Nazioarteko Eguna zela tarteko, 200 litroko 192 bidoi ur jarri zituen AMVISAK Florida pasealekuan barna, kopuru horrek irudikatzen baitu gasteiztar bakoitzak urtean izaten duen ur kontsumoa. Etxeko erabilerarako baliatutako 38.500 litroak zeuden han; hain zuzen: dutxa, komuna, higieena, etxetresna elektrikoak, etxearren garbiketa... Alegia, pertsona batek bi eguneko bidoi bat kontsumitzen du.

Helburua zen gure kontsumoari buruzko arreta deitzea, txorrotan erabilera arduratsua egiten jarraitzeko gonbita egitea, eta gogoraraztea planetako toki askotan ez dituztela gutxieneko hornidura eta saneamendu zerbitzuak ere.



'Oso ondo' aitortpena, uraren kudeaketa onagatik



Uraren Nazioarteko Egunarekin lotutako ekitaldien artean, uraren kudeaketan praktika onak egiteagatik "Oso ondo" aitortpenerako diploma banaketa egin zen martxoaren 26an. Gorka Urtean alkatea izan zen buru, eta **hiriko hamaika instalaziori** egin zitzaien aitortpena. Hauei, hain justu: Zabalganako osasun zentroa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia (Arkauti), Arakako base militarra, Centro Vitoria hotela, San Martingo Udal Bulego Teknikoak, Aranbizkarrako eta Sansomendiko Adinekoentzako Zentro Soziokulturalak, Fitness Gasteiz Los Herran, Astronomos futbol zelaia, Olanarbeko kirolgunea eta Landazuriko kiroldegia.

Instalazio horiek guztiek AMVISAREN Futura Planaren diagnosi programan parte hartu dute. 2005. urteaz gero, 183 zentrori egin zaie diagnostikoa eta 99 praktika on identifikatu dira. Programa honen bitartez, hiriko ur kontsumoa erabileren arabera aztertu da. Hala, kontsumo eraginkorra lortzeko hobekuntzak eta aldaketa teknologikoak txertatzeko modua aztertu da, eta hiriarentzat erreferentziakoak diren praktika onak identifikatu dira.

Larrialdia Mozambiken

Mozambiqueko uholdeek eragindako egoera larria dela tarteko, AMVISAKo Administrazio Kontseiluak erabaki du **UNICEFI 50.000 €-ko diru laguntza ematea, "Idai zikloiak Mozambiken eragindako larrialdian esku hartzeko proiektua" garatzeko.** Proposamena Arabako Larrialdietako Funtzari aurkeztu zaio, eta hango zerbitzu teknikoek baikor hartu dute. Hain zuzen, funtsak jaso eta bederatzir hilabeteko epean gauzatu da.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Haxe da helbidea: info@amvisa-futura.org